

Paperik gabeko bulegoa eta lanpostu-espazio askea

Innobasque-Gipuzkoa berritzen enpresak Miramongo egoitzan bulego berrien antolakuntzarako lehiaketa bat antolatu eta Estudio Rulot arkitekto talde donostiarrak irabazi zuen.



Estudio Rulot °

Aldiri, 2012, III, 9, 20-23, ISSN 1889-7185
Jasotze-data: 2011-12-23 / Onarpen-data: 2012-1-13




Erredakzioan itzulia

Bi ideia nagusik bideratu dute Innobasque-ren bulego berriaren proposamena zeingeroko eraikitze-lana: lanpostuen espazioa modu askean ulertzeko desioak alde batetik, eta paperik gabeko bulego bat irudikatzeak bestetik.

Lehiaketaren oinarriek eskakizun bat tematu zuten: bulegoak jaso beharreko lanpostuen antolakuntzak malgutasuna behar zuela. Langile finkoez gain, freelance edo aldi baterako langileak ere lanean izango baitziren espazio bera partekatuz. Berrikuntzaren erakundea da Innobasque, eta haren egitekoen artean, diziplina desberdinetako lankidetzaz bultzatzea eta sustatzea dago hain zuen ere. Lan-espazioa, hortaz, egoera-anizkoiztasuna jasotzeko prestaturik izan behar zen. Erabiltzaile-tipologiez gain, bilera eta talde-lanerako espazioak antolatzeko aukera bermatu beharra zegoen proposamenean.


Liburutegian, nor bere liburua hartu eta gogokoen duen txokora hurbiltzen da. Horrelakoxea behar zuela izan Innobasque-ren bulego berriak otu zitzaigun. Lanerako espazioan ere, eguneko beharren arabera askatasunez antolatzeko aukera eskaintzeko aukera izan liteke, eta horren premisarekin hasi ginen lanean.

Ohiko bulegoetan lanpostua ordenagailu finkoen inguruan egituratzen da. Langileak bere "etxea" edo gune indibiduala sortzeko joera du, paperak, lanerako gailuak, landare edo bidaia pertsonalen argazkiez osaturik izaten da lanpostuaren mahaia. Askatasunez mugitzeko lanpostuak izateko, ordenagailu finkoa baztertu beharra zegoen, besteak beste. Indibidualtasuna mugatzen duten tabike edo manparak ere (bilera-gelak edo nagusiaren gela banatua sortzeko, esaterako) alboratu genituen.




Hitz batez, ohituak garen lan-espazioen zurruntasuna krisian jarriaz bulego berria proposatzen hasi ginen. Horrekin batera, lan-giro horizontalerako bideak ezarri genituen, komunikazioa, harremana eta elkarrekintza modu antolatuan edo espontaneoki sortua izan dadin. Langileen artean elkarlana egon dadin, espazioak berak horretara bultzatu behar gaitu eta.


Espazioaren malgutasuna nola lortu galderari erantzuteko bidean, papera bulegotik desagertzeak abantaila handiak ekar- tzerik bazuela ohartu ginen. Langileen lan-tresneria ordena- gailu eramangarri eta haririk gabeko telefonora sinplifikatu daiteke, paperik gabeko bulegoan. Papera deuseztatzearekin batera, kablerik gabeko gailuak gailendu ziren (WIFI teknolo- giaren laguntzaz). Bi akzio horien bitartez, langilea bulegora ailegatutakoan, armairutik ordenagailu eramangarria, honen batera eta telefonoa hartuz, bakarrik edo kideekin batera lan- espazioan nahi duen gunean lan egitea ahalbidetzen genuen.



Bulegoa sarean eskuragarri diren hainbat mekanismez baliatu daitezke: IPE telefonoa, skype, dropbox, sare-zerbitzariak, wi-fi bidez lotutako inprimagailuak, musika aparatuak, bideo proiektagailuak, etab... **Kablerik gabeko bulegoa irudikatzea, edo kableen eragina gutxiesteko aukera behinik behin, erraza zaigu egun.**




Azaldu bezala, lanpostua libreki eta espontaneoki antola dadin, biltegi komun baten eskakizuna dago. Bertan, ordenagailuak, bateriak, telefonoak, inprimagailuak, zaborrontziak, artxiboa, dokumentazioa, etab... gordetzeko. Mahaietan sakabanaturik egoten diren elementu guztiak bilduko dituen espazio zehatz eta finko bat alegia, lan-mahaiak garbi eta hutsik mantentzeko ezinbesteko espazioa.




Bilketarako armailu horretan, material komuna, arropa pertsonala, liburutegia, inprimatzeko gunea, zerbitzaria, ordenagailuak eta arraska bat ere daude. Logistikarako guneak lanerako espazio handi bat libre uzten du, non lan-antolaketa desberdinak osa daitezkeen, eta aukera ematen du Innobasque-ko lan-egituraketan beharrezkoak diren lan-modu guztiak sortzeko.

Bulegoan baina, indibidualki lan egiteko, talde handietan zein txikietan lan egiteko guneak beharrezkoak ziren. Aldi baterako espazioa banatzeko sistemarik erraz eta eraginkorrena, gortinak direla uste dugu. Esfortzu gutxi eskatzen dute eta beharren arabera ireki eta itxi daitezke. Gortinek gela handi, txiki eta ertainak baimenduko dituzte, bat-batean sor daitezkeen banatzaile iragankorren bidez.



Gortinek zehar-argiak behar zuten, bulegoaren barnealdera argia igarotzen uzteko. Gortinan berrikuntzak eragin behar genituen, isolamendu akustikoaren propietateak bere gain hartzeaz gain, argia pasatzen uzteko aldi berean. Bada bafle mehe batzuen teknologia merkatuan, gortinetan josi daitezkeenak. Software batek mikrofonoak jasotako ingurugiroko soinua aztertuko luke, eta gortinak horren arabera soinuak igorriko ditu soinu guztien batuketak, espazioko soinuak baliogabetzeko.

Open office kontzeptua, armairu-biltegi, lanerako mahai eta gortina baten bitartez lortzen da. Konplexutasunik gabeko elementuok gune estratergiako berria marraztuko dute, malgutasuna eta teknologiak uztartuz, lanerako giro egokiak bermatzeko ahaleginetan.



Arkitekturaren historian oinplano aske aspaldian sortutako ideia da eta bulego-tipologietan, F.L. Wrighten Johnson Wax bulego-eraikinean praktikara eraman zenetik, maiz erabilia izan da. Baina lanpostua lurrera ainguraturik izan dugu beti, espazio jarraitu batean kokaturik. Ikuspegi horretatik Innobasque-ko bulegoan egoera hori gainditzeko saiakera egin dugu.

Eraikitze-prozesuan bestelako aurkikuntzak ere izan genituen. Aurreko bulego-banaketaaren desmuntaiaren aluminio zulatuzko sabaia kendurik ikusi genituenean, sabaiko materiala birziklatzea otu zitzaigun. Biltegi-armairua sabaiko materialaz estalirik izateko aukera baitzegoen. Birziklatze- eta konpontze-lanak, kasualitatez, bulego berriaren kontzeptu eta diseinuaren parte bilakatzea lortu genuen.

Goian azaldutako ideia batek berak ere ez du aurrerapen teknologikorik ekartzen. Kontzeptu sofistikaturik ere, ez dugu agertu. Eguneroko bizitzan ordenagailu eta sarearen aukerak normaltasunez erabiltzen ditugun bezala, aireportu edo kafetegietan WI-FI espazioekin trebatuak gara jadanik. Horiek guztiak lanerako espazioetan egokitzearen ondorioak besterik ez dira hemen esandakoak.



° Estudio Rulot Santiago Noain, Arkaitz Lasa, Anabel Varona eta Carlos Arrutik osatutako arkitekto taldea da.